



XELEBREKERIAK

Herri guztietan daude xelebrequeriak, kontatzeko, kantatzeko, xelebrequeriak... dio abestiak. GUREAN ERE BAI, NOSKI!

2014ko Liburu Erraldietan landuko duzuen gaia “XELEBREKERIAK” izango da. Durangaldeko herri, auzo, etxe, taberna, baso, kale, denda... ezberdinetan gertatutako xelebrequeriak.

ZER DIRA XELEBREKERIAK ?

Ahoz aho, herriz herri kontatzen diren pasarteak, historioak, anekdotak, kondairak...

ZER KONTATU ?

Bi aukera dituzue:

- Zuzenean norberak bizi izandako bitxikeriak (sendian, lagun artean, ikastetxean, auzoan...).
- Zeharka entzundako bitxikeriak (aiton-amonen, gurasoen, bizilagunen, izeba-osaben, lagun... eskutik jasotakoak).

NOLA KONTATU ?

Kontakizunaren estiloa librea izango da: ipuin, marrazki, bertso, kantu, poema, komiki...

ASKATASUN OSOZ JOKATU!

KONTUTAN IZAN:

- Liburu Erraldiek zuen herriko xelebrequeriak gordeko dituzte, datozen belaunaldiek ere ezagutu ditzaten.



LIBURU ERRALDOIA

ARGIBIDEAK

- Ikasgela bakoitzeko kideek, liburuaren orrialde bat erabiliko dute xelebrequeria lantzeko. Ikastetxe bateko maila bakoitzean, ikasgela bat baino gehiago badaude, ikasgela bakoitzak orrialde bat.
- Aurten, xelebrequeriak lantzea izango duzue helburu. Horretarako, gida simple bat ere prestatu dugu ikasgelan lagungarri izan daitekeena.
- Xelebrequeriak sinatuta joan beharko dira; zein ikastetxek eta bertako zein ikasgelak egin duen jakiteko.
- Liburu erraldoiak zaindu mesedez. Ikastetxe eta gazte askoren eskutik pasatu behar dira, beraz errespetatu eta txukun mantendu.
- Abenduaren 5etik 8ra bitartean DurangokoAzokako Saguanbara gunean egongo dira ikusgai, bertara hurbiltzen den publiko guztiarentzako.
- Liburu erraldoiak ikastetxeetatik bueltaka ibiliko dira eta bakoitzak data zehatz batzuetan izango du ikastetxean liburua, beraz, xelebrequeriak eta diseinua aurretik prestatzea gomendatzen dugu, liburua heltzerakoan, prozesua arinagoa izan dadin.